

ARIKETA PRAKTIKOA

1. Esan zein prozesu gertatu den kasu bakoitzean, gertaeren arrazoia emanaz.

len den > len ɲden

- /n/ kontsonantearen hurrengoa /d/ horzkaria izanik, lehena kutsatu eta horzkaritu egiten du asimilazio erregresiboa deituriko prozesua aurrera eramanez.

puk tot > pu tot

- /k/ kontsonante belarra eta /t/ horzkariak elkarren jarraian ahozkatzeko zailtasuna izaten du normalean hizlariak; biak ala biak ahoskabeak direnez /k/ galdu egiten da sintagman ahultze edo ezabatze prozesua emanaz.

bil loto > bir loto

- bai /l/-a eta baita /r/-a ere kontsonante likidoak dira eta erraztasunez ahozkatzen dira beste kontsonanteen jarraian edota aurretik; hala ere, beste kontsonante baten aurretik edo silaba amaieran joate hutsak jada ahultze prozesua dakarrenez, silaba hasiko duen hurrengo kontsonante “indartsu” horren ondorioz aurrekoa eraldatu eta /l/-a eta /r/-a haien artean trukutzen dira asimilazio progresiboa emanaz.

puk -mon > pukamon

- /k/ kontsonante belarra eta /m/ sudurkaria elkarren jarraian ahozkatzeko zailak izateagatik batzen du hizkuntzak /a/ erdian, lagundu eta “zubi” funtzioa eginez epentesia fenomenoak sortaraziz.

rasna > rahna

- /s/ eta /n/ kontsonanteak elkarren jarraian ahozkatzeak zailtasuna sor dezakeenez, lehen silaba amaitzeko erabiltzen den kontsonante hori posizio ahulago baten (menpeko) egonez, sudurkariaren eragina sufritu eta eraldatu egiten da disimilazio prozesua gauzatuz.